

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideak proiektua martxan jartzeko behar diren derrigorrezko elementuak dira. Hauekin bezeroarengana ailegatu ahal da enpresa, haiekin harremana lantzea baita dirua irabaztea, gainera produktu edo zerbitzuaren eskaintza garatzea ahalbidetzen dute.

4 taldetan banatu ahal dira funtsezko baliabideak:

- Baliabide fisikoak
- Baliabide intelektualak
- Giza baliabideak
- Finantza-baliabideak

Baliabide fisikoak: Objektu fisikoak dira hemen satzen direnak, hala nola: materiala, lokala, ordenagaiak eta tresna elektronikoak gure kasuan.

Baliabide intelektualak eta Giza baliabideak: Hemen enpresaren edo taldearen pertsonen baliabideak sartzen dira: bakoitzaren trebetasunak (sormena duen pertsona, harremanak ondo mantentzen dituen eta), ezagutzak eta abileziak... Komunikazio ona adibidez.

Finantza baliabideak: Atal honetan aurrezkiak sartzen dira, enpresarenak hain zuzen ere. Baita bankuei eskatutako maileguak.